


KOITERETZIA - IÑAKI SEGUROLA



SINOPSISIA:

Beharbada aseaz zaude grafiko, zenbaki, bilakaera, intzidentzia, olatu eta txosten epidemiologikoekin. Edo betexea zaude iritzi eta jarrera gogortuekin: jardun ofizialista gogorarekin bezalaxe, kontrajardun ernegazionista merkearekin. Zeren, agian, zuk zalantzak daukazu, eta jarrera aldakorak.

Beharbada aditu nahi zenuke jende ezezaguna hizketan beren bizitza ezezagunetan, ea zer dioten, «bizitzatik», 2020ko martxoko bizi-etenaz geroztikako mundu honetan; gure bizitzetako sasoi xeble eta ustekabekoena gertatu den honetan.

Eta beharbada zure belarri euskalduna aspertua dago covid, sars eta holako aldrebeskeriak aditzen, eta agian zure belarrian eta aho-mihietan kobitemeretzia, esanaren esanez, KOITERETZIA bihurtua dagoke.

Giro errealean garatzen den fikzioa duzu eleberriz hau, elkarrizketa hutsez emana, kronikaren eta saiakeraren uretatik edaten duena garai historiko baten eleberriz eraikitzeko. Ahozkotasuna, ideia konplexuen bidelagun ere izan daitekeelako.